

Delegados de Osasunbidea su suman a la marcha del 31M en Iruñea

HERRIRA :: 24/03/2012

Trabajador@s de Osasunbidea comparecieron ayer en rueda de prensa para pedir la libertad de l@s pres@s enferm@s y hacer un llamamiento a la manifestación del 31 de marzo

[Euskara] Osasunbideako langileek prentsaurreko bat eskaini zuten atzo gaixotasun larria duten presoen askatasuna eskatzeko, baita martxoaren 31an Herrirak antolatu duen manifestaziora deitzeko. Langileek manifestu bat aurkeztu dute, CCOO, LAB, ELA eta SATSE sindikatuetakako ordezkarien babesa jaso duena, maila pertsonalean. Horrez gain, 200 langile baino gehiagok sinatu dute manifestua. David Mendazak aurkeztu du manifestua.

Manifestua Osasunbideko langileak gara, eta bat egiten dugu, manifestu honen bidez, Iñaki Erro, Jesus Mari Mendinueta, Iñaki Etxe-berria eta Josetxo Arizkuren presoekin, hots, eritasun larriak dituzten lau preso nafarrekin, aske utz ditzaten eskatzeko. Ideologia desberdineko pertsonak gara, eta oso ikuspuntu desberdinak ditugu lau lagun horiek kartzelara eraman dituzten arrazoiez. Baina guztiok aritzen gara lan arlo berean, osasunean, eta alde horretatik esan dezakegu beharrezkoa dela preso horiek kartzelatik ateratzea, pairatzen dituzten gaitz larrietarako arreta egokia jaso dezaten. Bestela, kartzelako egonaldiak patologia horiek larriagotu eta sendaezin bihurtu ditzake (eta hala gertatzen ari da dagoeneko). Are gehiago kontuan hartuta etxetik ehunka kilometrora daudela, sakabanaketaren ondorioz, konfiantzako medikuen arreta egokia jasotzeko aukerarik gabe. Osasun arloko profesionalak ez ezik, gizarte honetako kideak gara, bertan bizi gara. Eta gure nahia da urratsak egiten segitzea bake egonkorra ekarriko duen egoera, atzera bueltarik gabekoa, lortzeko. Kasu honetan, zigor luzeak (25, 20, 16 eta 13 urtekoak, hurrenez hurren) beteak dituzten preso batzuek ari gara; lehenbiziko biek zigor osoa bete dute, eta haien askatasuna giza eskubideei dagokien gaia dela uste dugu, berehalaxe konpondu beharreko gai bat alegia. Gure iritziz, Gobernuak urratsak egin behar ditu orain, eta guztiz zentzuzkoa da eritasun larriak dituzten preso guztiak kartzelatik ateratzea. Beraz, sostengua eman nahi diogu Herrira mugimenduak datorren martxoaren 31rako Iruñean deitu duen manifestazioari, eta horrekin batera, nafar guztiei indarrak biltzeko eskatzen diegu, bake prozesuak aurrera egin dezan laguntzeko.

[Castellano] Trabajadores y trabajadoras de Osasunbidea comparecieron ayer en una rueda de prensa celebrada en el Complejo Hospitalario de Navarra, para pedir la libertad de los presos y presas con enfermedades graves y hacer un llamamiento a la manifestación convocada por Herrera el 31 de marzo en Iruñea. Han presentado un manifiesto al que se han sumado, a título personal, delegados de CCOO, LAB, ELA y SATSE de la comisión de personal y del comité de empresa de Osasunbidea, y más de 200 trabajadores y trabajadoras por el momento. El manifiesto ha sido presentado por David Mendaza, miembro de la comisión de personal Osasunbidea. **Manifiesto** Somos trabajadores y trabajadoras de Osasunbidea, y lo que nos une en este manifiesto es la demanda de libertad para Iñaki Erro, Jesus Mari Mendinueta, Iñaki Etxeberria y Josetxo Arizkuren, cuatro presos navarros que sufren graves enfermedades. Tenemos distintas ideologías y vemos de manera muy distinta

los motivos por los que estas personas están en la cárcel. Sin embargo, compartimos un ámbito, el sanitario, y desde ese punto vemos la necesidad de excarcelarlas para que puedan ser atendidas correctamente de las graves dolencias que padecen. De lo contrario, su estancia en prisión puede contribuir (y ya lo está haciendo) a que estas patologías se agraven y puedan llegar a ser irreversibles. Máxime cuando se encuentran dispersados a cientos de kilómetros y sin posibilidad de ser atendidos correctamente por sus médicos de confianza. Además de profesionales de la sanidad, también somos personas que vivimos en esta sociedad. Y queremos que se sigan dando pasos hacia un escenario de paz estable e irreversible. En este caso, hablamos de presos que ya han cumplido largas condenas (25, 20, 16 y 13 años respectivamente), los dos primeros ya la han cumplido en su totalidad, y creemos que su puesta en libertad es una cuestión de mero respeto a los derechos humanos. Vemos necesario que el Gobierno de pasos en este momento, y la excarcelación de todos los presos enfermos graves nos parece algo de sentido común. Por lo tanto, apoyamos la manifestación convocada por el movimiento Herrira para el próximos 31 de marzo en Pamplona, y llamamos a toda la ciudadanía navarra a sumar fuerzas para que el proceso de paz siga adelante.

<https://eh.lahaine.org/delegados-de-osasunbidea-su-suman-a-la-m>